

# AURKEZPENA

Gu, Unai Callejo, Mikel Feijoo eta David Sánchez gara, DUM enpresaren sortzaileak, eta *Dagnyo-Watch* proiektua egingo dugu. Erloju azkar bat da; hau da, erloju teknologiko-digitala. Erlojuak diabetikoak diren pertsonak haien glukosa-maila edozein lekutik kontrola ahal izateko balioko du. Horrek hainbat pertsonaren segurtasunari lagunduko dio, eta haien bizitza-kalitatea hobetzeko balio izango du. Diabetesa gaixotasun kronikoa da, eta pankreak intsulina nahikoa sortzen ez duenean edo organismoak sortzen duen intsulina eraginkortasunez erabiltzen ez duenean agertzen da. Kontrolatu gabeko diabetesaren eragina hipergluzemia da (odoleko azukrearen gorakada).

Espainiari dagokionez, Diabetologia-n argitaratu berri dira, Europako Diabetes Elkartearen adierazpen-organoan, gure herrialdean orain arte egindako azterlan epidemiologiko onenaren emaitzak: estudio di@bet.es.

Datuek iragarpen txarrenak gainditzen dituzte; izan ere, 18 urtetik gorako espainiarren % 13,8k 2. motako diabetesa du, hau da, 5,3 milioi herrikide baino gehiago. Horietatik, ia 3 milioi diagnostikatuta zeuden, baina 2,3 milioi, guztien % 43k, ez zekiten gaixotasuna zutela.

Egun, erloju digitalen ekoizpena gero eta handiagoa da, jendearentzat erabilgarriak direlako, baina ez dira asko existitzen osasuna hain zehazki kontrolatzen dutenik. Erosotasunaren aroan bizi garenez, bezeroak euren osasuna zaintzeko modurik erosoenen bila joango dira, eta horretarako dago gure produktua eginda.

